

# Oñati letrarik letra (II)

*Gezurra dirudien arren, ia hamar urte pasatu dira aldizkari honetantxe lehenengo "Oñati letrarik letra" izeneko sailari ekin genioenetik. Orduko hura osatu guran-edo, beste alfabeto txantxikuar batekin hasiko gara, hilero erabateko askatasunaz gure herriko pertsona, leku edo konturen bat aitzakiatzat hartu eta A-tik Z-rainoko gai oñatiarrak lantzeko asmotan.*

**A**RAOTZ ospetsu bihurtzen ari zaigu azkenaldi honetan. Arrazoi desberdinengatik pertsona asko hurreratzen da Oñatiko auzo horretara: espeleologiazale eta puentinglariak Jaturabe ingurura; eskaladan ari direnak Sandailiko hormetara; mendizale eta ibiltariak Atxulo, Araozta, Ugastegi, Andarto eta abarretara; ehiztariak Usbakotxenera; eta egunpasa dabiltzanak elizondoko tabernara, gorpuz-animen premiak asetzera.

Bada, ordea, jendea erakartzeko beste arrazoi bitxi bat ere: "lopezaletasuna" alegia. Agerreko Lope famatuaren araoztartasuna oraindik inork frogatu ez badu ere, ia mundu guztiak gauza ziurtzat jotzen du marañoien buruzagi bortitzaren sortetxea auzo honetan kokatzen dela. Horregatik, sarritan ikus daiteke hainbat turista despistatu Loperen jaiotetxearen bila: batean Agerren, hurrengoan Lopenean, edota Txopenean.

Alabaina, gutxi dastatzen dituzte bere osotasunean Araotzek gordetzen dituen edertasunak. Izan ere, gorago aipatu diren gauza horietaz gain, zenbat elementu ikusgarri aurki daitekeen auzo zabal hau osatzen duten zortzi auzune politetan: tumuloak, zubiak, presak, kanalak, errotrak, karobiak, *errekak* edo labaderoak, antzinako bideak, ermitak, gurutzeak, perratokia, base-ri giroko eraikuntza interesgarriak eta parrokia zoragarria, besteak beste.

**B**IDAURRETA hitza entzutearekin batera, mojak, komentua, hamairu arrautzako dozena, Vera Cruz kofradia, hospederia eta beste hainbat gauza datorkigu gogora. Baina, sarri askotan gertatzen den legez, izena izana baino lehenagokoa da. Edo beste modu batera esanda, Bidaurreta bazen XVI. gizaldian komentua jaso aurretik ere. Eta ez orain mojak bizi diren paraje horretan, apur bat gorago baino. Olako dorrea Bidaurreta deitzen zen XV. mendearen hasieran eta Olabarrieta alderagoko beste toki batzuk ere bai, dirudienez.

Edonola ere, Lazarragatarrek Oñatiko kondearekin izandako haserrealdia batean euren ehorzleku gisa jasoarazi zuten elizakomentuak aberastasun miresgarriak ditu bere baitan. Elizan dauden erretaula bikainak eta gainontzeko arte-elementu aipagarriak ikusteko aukera mundu guztiak dauka. Baina komentu barruko dotoretasun simple eta soilaz gozatzeko zoririk pertsona gutxiri eskaintzen zaio. Klausurro, logela, jangela eta beste elementu garrantzitsu batzuei buruz ari naiz. Monjen eguneroko bizimoduan oztoporik jarri gabe, ez al dago noizean behin klausurako edertasunok herri-terrei erakusteko modurik?

JERARDO ELORTZA

## M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI

Begoña  
Mertzeria

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

Begoña  
Edertasun Zentrua

- Solariuma
- Pedikurak
- Depilazioak
- Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI